



kritiken hemeroteka

6.705 kritika

Honi buruz

Bilaketa

Hasiera

Azken kritikak

- **Bitakora kaiera**
Ibon Sarasola
Mikel Ayerbe
- **Trilogia hiperlaburra**
Karlos Linazasoro
Hasier Rekondo
- **Hitz Margotuak**
Karlos Aretxabaleta / Mikel Manso
Igor Estankona
- **Hamaika euskal literato eta Jainkoa**
Sebastian Gartzia Trujillo
Javier Rojo
- **Franco hil zuten egunak**
Koldo Izagirre
Alex Gurrutxaga
- **Urtemuga lehorren kronika**
Itxaro Borda
Aritz Galarraga
- **Franco hil zuten egunak**
Koldo Izagirre
Ibon Egaña
- **Elkarrekin esnatzeko ordua**
Kirmen Uribe
Iratxe Esparza
- **Isil-mandataria**
Jean Echenoz
Javier Rojo
- **Ahantzerriko kop(I)ak**
Luigi Anselmi

« [Waterloo-n galdutakoak](#) | [Axolagabekeriak irabazten duenean](#) »

Elur bustia / Pello Lizarralde / Erein, 2016

Krisian bidelagun → Amaiia Alvarez Uria / *Argia*, 2017-01-01

Azkenaldian kalean nabilenean tarteka Ramiro-ak ikusten ditut. Banku batean jarrita daude, bakarrik, txanoa buruan, zigarroari atxiki luzeak emanez, motxila aldean dutela. Horrelakoa da liburu honetako protagonista, hori da bere izena. Hegoaldetik etorri da lan bila, atzean utzitakoei dirua egin eta berehala bueltatuko dela esanez. Eta liburu honetan hurbiletik jarraitzeko proposamena egin digu Pello Lizarralde, bere bidelagun izango gara tarte batez, bere gora-beheren lekuko.

Lizarralde irakurtzea niretzat egunerokoaren erritmoa moteltzea da. Gelditu eta ingurura begira jartzea. Ñabardurei erreparatzea. Txakurra kale zokoetan bila, laino ilunak eta euri tanta hotzak, trafikoaren zarata, arropa soinari itsatsita eta izerdi usaina. *Sautrelan* egin zioten elkarrizketan idazlan honen abiapuntua egunkarian ikusitako irudi bat izan zela kontatu zuen, eta egia esan, badira zenbait irudi egunkari eta albistegietan agertzen zaizkigunak maiz liburuan ere letraz marraztuak.

Hori baita jorratzen den gaia: "krisia" eta horrek gizon batengan dituen ondorioak. "Migrazioei" buruz hitz egin genezake, "etorkin ekonomikoek" buruz, "lana"z, edo isiltasunez, harremanez, teknologiez, edo bestela bakardadeaz, mesfidantzaz, biziraupenaz; hori guztia agertzen zaigulako orriotan. Beñat Sarasolak elkarrizketan aipatu zion egileari *Odol bustia* ere izan zitekeela izenburua. Izan zitekeen.

Baina, *Elur bustia*-k giro hotza dakarkigu gogora eta azalera, etengabe agertzen den giroa, izan pertsonen arteko tratuan, izan klimatologiari dagokiona. Izerdia xukatzen dabil pertsonaia lortzen dituen lantxoak egin ostean, bere burua txukuntzen ahal duen moduan. Eta narrazioak aurrera egin ahala euria agertzen da hasierako eguzkia estaliz eta giroa apurka hoztuz. Elur bustiak irudikatzen du pobrezia, bizirauteko sena, aurrera egiteko beharra.

Liburua amaitu eta, esan bezala, Ramiro-ak ikusten ditut tarteka kalean zehar nabilenean, eta konturatzen naiz zelan geratzen diren gurekin irakurri ditugun liburuetakoa pertsonaia, irudi

Artxiboa

- Urtarrila 2017
- Abendua 2016
- Azaroa 2016
- Urria 2016
- Iraila 2016
- Abuztua 2016
- Uztaila 2016
- Ekaina 2016
- Maiatza 2016
- Apirila 2016
- Martxoa 2016
- Otsaila 2016

Aurreko urteak ▼

Hedabideak

- Argia (850)
- Berria (848)
- El Diario Vasco (807)
- El Correo (733)
- Gara (548)
- Egunkaria (505)
- Deia (357)

Hasier Rekondo

→ **Franco hil zuten egunak**
Koldo Izagirre
Javier Rojo

→ **Elkarrekin esnatzeko ordua**
Kirmen Uribe
Alex Gurrutxaga

→ **Elkarrekin esnatzeko ordua**
Kirmen Uribe
Hasier Rekondo

→ **Lo zaudela zabaldu**
dizkizut begiak
Mikel Etxaburu
Iker Zaldua

eta istorio batzuk, denbora batez bada ere. Eta galdera bat datorkit burura: nola jokatu nuke nik egoera hori bizitzea egokitu balitzait? "Baina" asko ere bai: baina ni emakumea naiz; beraz, nolakoa litzateke *Ramiraren Elur bustia*? Baina nik beste lan batzuk egingo nituzke; zer egiteko aukera izango nuke horrelako egoera batean? Baina ni mundu honetako "iparraldean" bizi naiz; nora jo beharko nuke nik dirua egitera? Ea zer ekartzen dizuen zuei Ramirorekin egingo duzuen bidaiak.

→ El País (151)

→ Aizu! (143)

→ Irunero (122)

→ Zeruko Argia (97)

→ Egin (77)

→ Hegats (62)

→ Besterik (1404)

